



LORTU NAHI DUGUN ETORKIZUNA

*Planetan trantsizio justu eta jasangarri
baterako bideari ekinez*

EL FUTURO QUE QUEREMOS

*Emprendiendo el camino hacia una
transición justa y sostenible en el planeta*

LORTU NAHI DUGUN ETORKIZUNA Gizarte zibilaren konpromisoak eta eskakizunak, euskal alderdi politikoei begira

ESPARRUA

Gizarte zibileko 50 erakunde, sare eta plataforma baino gehiago biltzen dituen "Futuro en Común" ekimenaren esparruan, 2023. eta 2024. urteen artean euskal gizarte zibilaren bost topaketa antolatu dira, "LORTU NAHI DUGUN ETORKIZUNA" goiburu hartuta. Topagune aktibo horretan, ingurumenaren, feminismoaren, gizartearen, kulturaren, garapenaren, gaztediaren eta giza eskubideen arloetako erakundeek konpromisoa hartu dute, 2030 Agenda aldaketa-eragileztat hartuta, honako gai hauek bakarka zein taldean lantzeko: pobrezia tokiko zein munduko kausak, desparekotasunak eta ingurumenaren zaintza.

UN Etxeak beste gizarte-erakunde batzuekin elkarlanean antolatutako topaketa horiek eztabaidarako eta hausnarketarako plataforma ezin hobek izan dira, eta balio handiko ekarpenak jaso dira, ingurumena eta giza eskubideak errespetatuko dituzten politika inklusiboak eta feministak eraikitzen laguntzeko.

Prozesu horren ondoriozko dokumentuak biltzen ditu adostutako gogoetak eta proposamenak, helburutzat hartuta:

1. Jendaurrean erakustea gizarte zibil antolatuak duen konpromisoa Euskadik etorkizun bidezkoa eta iraunkorra izan dezan lortzeko, eta mundu bidezkoagoa eta planetarekiko errespetutsuagoa lortzeko trantsiziorako aldaketa-eragilea izateko.
2. Helaraztea hautagai eta arduradun politikoei euskal gizarte zibilaren eskakizunak eta proposamenak, sustatu ditzaten garapen inklusiboa, feminista, demokratikoa eta iraunkorra lortzeko politikak.

Dokumentu hau egiten 200 lagun inguruk hartu dute parte, gizarte zibileko 100 erakunde ingururen ordezkariak horiek, eta gure esker ona adierazi nahi diegu guzti-guztiei.

LORTU NAHI DUGUN ETORKIZUNA: ADIERAZPENA

Gaur egun ziurgabetasuna da nagusi munduan: pandemiak, krisi ekonomikoak eta gerrak bizi ditugu inoiz ikusi gabeko gertaera klimatikoekin, elikagaien garestitzearekin eta gorroto-jarrerekin batera; azken horiek, bestalde, giza eskubideen aurkakoak izan arren, espazio publikoak konkistatzen ari dira (INconFORME, 2024). Jada ohartarazi digu Antonio Guterres NBEko idazkari nagusiak: "Amildegiairean aurrean gaude, eta okerreko norabidean goaz".

Euskadin, azken urteotan aurrerapausoak eman arren, eragin eragiten digute bizi ditugun askotariko krisiek. Inoiz baino kontzienteagoak gara bizi garen mundua erabat interkonektatuta dagoela, eta kezka handia eragiten digu ikusteak lortutako eskubide sozialetan atzera egiteko arriskuan gaudela eta polarizazio soziala gero eta handiagoa dela.

Egoera halakoa izanik, gizarte zibila gogotsu eta grinatsu ageri da Euskadiren etorkizunari dagokionez; hau da, laguntzen jarraitu nahi dugu elkarri lotutako arazo eta erronka horiei aurre egiten, eta, horrezaz gain, lortu nahi dugun mundua lortzeko aldaketaren parte izan nahi dugu.

Beste ziklo politiko bati ekingo diogu laster, eta, gure ustez, une honetan ezinbestekoa da gizarte zibilaren eta erakundeen arteko konpromisoa eta lankidetzaren sendotzea, aurrera egingo badugu etorkizun bidezkoagoa eta jasangarriagoa lortzeko bidean. Onartzen dugu aurrerapausoak eman direla, baina legealdi honetan lortu nahi duguna lortzeko anbizio handiagoa izan behar dugu.

Orain da unea, gizarte bidezkoagoa eraikitzea helburu hartuta, neurri zehatzak eta eraginkorrak hartzeko. Izan gaitetzen gizarte zibil antolatua eta arduradun politikoak aldaketa-eragileak, eta egin dezagun elkarrekin lan, desperekotasuna eta pobrezia benetan iraganeko kontuak izango diren etorkizunaren alde.

Horretarako, gizarte zibila garen aldetik, oinarriko printzipioen dekalogo hau prestatu dugu.

DEKALOGOIA

1. Giza eskubideen balio unibertsalak indartzea eta Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda ezartzeko bidean aurrera egitea, helburu hartuta gizarte bidezkoagoa, berdintasunaren aldekoagoa eta iraunkorragoa lortzea.
2. Bidegabekerien aurrean geldirik ez egotea, gizarte zibila indar sustatzailea baita politika inklusiboak, feministak eta ingurumenarekiko errespetutsuak eraikitzeko.
3. Egunerokoan ikuspegi feminista integratua ardatz izatea, genero-berdintasuna egia bihurtuko duen gizartearen sustatzeko eta feminismoa ulertzeko modu desberdinak daudela jabetzeko.
4. Bizitza eta zaintza erdigunean jartzea, pertsona guzti-guztien ongizatea bermatzeko.
5. Polarizazioari aurre egitea, eta, horretarako, eragile guztien artean adostasuna eta lankidetzaren sustatzea eta sektore zein eragileak elkarrekin hitz egiteko prest agertzea.
6. Giza eskubideei, garapen iraunkorrari eta herritartasun globalari buruzko heziketa eta kontzientzia publikoa sustatzea.
7. Pertsonen eta planetaren arteko eko-mendekotasuna aitortzea, krisi klimatikoaren aurkako borrokan inplikatzeko eta egungo kontsumo- eta ekoizpen-ereduaren ordez beste jasangarriago bat beharrezkoa dela onartzea.
8. Gizartean pertsona bakoitzak duen egitekoa sendotzea, denon artean eraikitzeko herritartasun kritikoa, aktiboa, solidarioa, arduratsua eta antolatuta.
9. Itxaropen-mezua transmititzea, fatalismoa eta katastrofismoa saihestuz eta bizikalitatean aldaketa positiboak sustatuz. Ekintzetako bakoitza, apala izanda ere, errealitatea eraldatzeko zeinen garrantzitsua den azpimarratzea.
10. Erakundearen artean gehiago eta hobeto aritzea elkarlanean, eta borroka bateratuaren garrantzia onartzea.

PROPOSAMENAK ADMINISTRAZIO PUBLIKOENTZAT

Orain azalduko ditugun proposamenak Futuro en Común ekimenaren baitan adostutako zazpi eraldaketa-ardatz nagusiren ingurukoak dira. Zazpi eraldaketa-ardatz horiek lotura dute elkarren artean, eta, beraz, sinergiaz, koherentziaz eta batera aktibatuz gero, oso baliagarriak izango dira behar dugun eredu berria lortzeko bidean eta 2030 Agendak ezarritakoa betetzeko bidean aurrera egiteko. Identifikatutako aldaketa-ardatz horiek, halaber, palanka-politikak hartzen dituzte beren baitan, eta oso baliagarriak dira lortu nahi diren eraldaketak sustatzeko, hain zuzen, estrategikoak eta multidimentsionalak direlako eta trakzio-gaitasuna dutelako. Proposamen guztiek Garapen Iraunkorrerako Politiken Koherentzia dute oinarri, eta, beraz, bat datoz Garapen Iraunkorrerako Helburuekin.

A. EKONOMIA PERTSONEN ETA PLANETAREN ZERBITZURA

Ezinbestekoa da aberastasunaren kontzeptua eta dirua bereiztea, eta aberastasuna gure bizitza eta, oro har, gizartea aberatsago egiten duten beste alderdi batzuekin lotzen hastea; hain zuzen, aberastasun jasangarriaren, bidezkoaren eta askotarikoaren kontzeptuarekin lotzea, bere baitan hartuko duena estutasunik gabe bitiztea, sinpletasuna eta nahikotasuna, eta ez gaur egun nagusi den baliabideen neurritz kanpoko kontsumoa. Horretarako, oso garrantzitsua izango da aberastasunaren beste kontzeptu bat adostea, alderdi horiek guztiak bere baitan hartuko dituen, bai eta giza garapena eta garapen iraunkorra oinarri izango dituen ekonomia sustatzea ere. Horrezaz gain, behar-beharrezkoa da gizartean eta ingurumenean inpaktu positiboa sorraraziko duten esku-hartzeak sustatzea, aurrera egiteko pertsoneri eta planetari onurak eragingo dizkieten eredu ekonomiko baterako bidean.

Proposamenak:

- 1. BPG bakarrik ez hartzea kontuan, benetan balioa duena kontabilizatzeko,** hau da, benetako gizarte- eta ingurumen-aberastasuna kontabilizatzeko; izan ere, hartara, pertsonen eta planetaren zerbitzura egongo den ekonomia jarri ahal izango da praktikan. Dagoeneko ari dira zenbait erakunde, hala nola Europako Batzordea eta Ekonomia Lankidetzak eta Garapenerako Erakundea, beste neurketa-modu inklusibo batzuk lantzen, eta horiek hartu behar dira oinarri aurrerapenaren zenbatekoa neurtzeko beste neurri batzuk adosteko eta BPG edo hazkunde ekonomiko bakarrik kontuan ez hartzeko. Adostutako adierazleen adibide ugari daude, jada erabiltzen dituztenak, besteak beste, Europako Batzordeak eta Ekonomia Lankidetzak eta Garapenerako Erakundeak: Gizarte Garapenaren Indizea (GGI), Desberdintasunaren araberako Giza Garapenaren Indizea (GGI-D), Hiri Jasangarrien Indizea, Gizarte Kohesioaren Indizea.
- 2. 2030 Agendarekin bat ez datozen jarduera ekonomikoei laguntza gehiago ez ematea funts publikoetatik.** Funts publikoak esleitzeko irizpideak berrikustea eta irizpide garbiak eta gardenak ezartzea proposatzen da; irizpide horiek Garapen Iraunkorrerako Helburuak (GIH) betetzearekin lotutako eskakizun espezifikoei izan behar dituzte, bermatzeko jarduera ekonomiko onuradunak bat datozela printzipio hauekin: ingurumen-jasangarritasuna, parekotasun soziala eta ekonomia-garapen inklusiboa. Helburu horiekin bat ez datozen jarduera oro finantza-laguntza publikoa jasotzetik salbuetsi egin beharko litzateke. Horrezaz gain, funts publikoak jasotzen dituzten erakundeek jasangarritasun-irizpideak betetzen dituztela bermatzeko, jarraipen- eta ebaluazio-sistema bat ezartzea gomendatzen da.
- 3. Ekonomia sozial eta solidarioa aktiboki sustatzea eta laguntzea, garapen iraunkorra eta bidezkoa lortzeko funtsezko eragilea den aldetik.** Sektore hori sustatzeko, askotariko neurriak ezartzea proposatzen da, besteak beste: zerga- eta finantza-pizgarriak, trebakuntza eta aholkularitza teknikoko programak, kontratu

publikoetarako lehenasunezko aukera, gizarteratze-enpresetarako merkatu-erreserba betetzea, eta enpresa sozialen artean sareak zein hitzarmenak sortzeko eta sendotzeko laguntza. Horrezaz gain, ekonomia sozial eta solidarioak garapen iraunkorrari egiten dion ekarpenaren sentsibilizazioa eta aintzatespen publikoa sustatu beharko litzateke, eta, horretarako, komunikazio- eta hezkuntza-kanpainak egin beharko liriateke herritarrei eta sektore publikoari zein pribatuari bideratuta. Horrek izugarri lagunduko luke halako ekimenetarako interesa pizten eta laguntza handiagoa lortzen, bai inguruan eta bai estatuan.

4. **Printzipio hauekin bat datorren kontratazio eta erosketa publiko arduratsua gauzatzea.** Gizarte-, ingurumen- eta etika-erantzukizuneko printzipioak txertatzea kontratazio eta erosketa publikoko prozesuetan, eta jasangarritasunarekin eta lan-eskubideekin konpromisoa erakusten duten hornitzaileak eta kontratistak lehenestea. Horretarako, hau da, hornitzaileak eta kontratistak hautatzeko, jarraibideak eta irizpideak ezarri beharko liriateke. Horrezaz gain, hornitzaileek eta kontratistek irizpide horiek betetzen dituztela bermatze aldera, bai eta betetzen ez badituzte kontuak eskatze aldera ere, ebaluatzeko eta monitorizatzeko mekanismoak ezar daitezke.
5. **Ekosistemak, biodibertsitatea eta berdeguneak babestea.** Ekosistemen eta biodibertsitatearen babesak erakunde publikoek eta enpresa pribatuek hartutako politiken eta neurrien parte izan behar du, eta ez bakarrik horiek eskaintzen dituzten zerbitzu ekosistemikoen eta gure ekosistemekiko elkarrekiko mendekotasunaren garrantziagatik, baita berezko balioagatik ere. Beraz, biodibertsitatearen babesa politika sektorial guztietan txertatu beharko litzateke. Era berean, beharrezkoa da eredu agroekologiko justu baterako trantsizioa, elikadura-subiranotasuna eta tokiko kontsumoa ere sustatuko dituen. Aldi berean, garrantzitsua da pertsonen naturara iristeko duten eskubidea bermatzea, bereziki hirietan, hiri-inguruneetan zuhaitzak eta berdeguneak kontserbatuz eta handituz, pertsonen osasun mental eta fisikorako onura frogatuekin.

B. DESBERDINKERIA ETA POBREZIA IRAGANEKO KONTUAK DIRA

Krisi-garaietan, talde batzuek sufrimendu handiagoa jasaten dute. Faktore ekonomikoak, jatorri etnikoa, adina, ahalmena, genero-identitatea edo bizilekua dela-eta egoera zaugarrian daudenak dira horiek. Behar-beharrezkoa da pertsona guztien zaintza bermatuko duen ongizate-estatu eraginkor bat ezartzea.

Proposamenak:

1. **Zaintza unibertsal eta eskuragarri baten bidez pertsonak zainduko dituen ongizate-estatu**, kalitate handiko zerbitzu publiko sendoek lagunduta. Horretarako, zenbait neurri aztertu behar dira; besteak beste, honako hauek:
 - Oinarrizko errenta unibertsala ezartzea, modu optimoan eta aurrekontu handiagoeekin kudeatuta, aberastasunaren birbanaketa sustatuz eta laguntzak zein dirulaguntzak oinarrizko errenta bakar batean batuz.
 - Kalitatezko hezkuntzarako aukerak pertsona guztientzat bermatzea, edozein dela ere haien egoera pertsonala; eta garapen pertsonalerako eta giza ezagutzarako prestakuntza eskaintzea.
 - Laguntzak eskuratzea erraztea eta alferrikako traba burokratikoak kentzea, sistema zentralizatuak eta eskuragarriak jarrita bai online modalitatean eta bai aurrez aurreko modalitatean; eta auzoetan leihatila bakarrak sustatzea, herritarren premiei aurrez aurre erantzuteko.
 - Aurrekontuak egokitzea, zerbitzuen kalitateari buruzko neurketa eta jarraipen pate-hartzailea kontuan hartuta.
2. **Desberdinkeria sorrarazten ez duten eta beren ekintzaren bidez pobrezia murrizten laguntzen duten ekimen-ereduak sustatzea.** Horrek bere baitan hartzen

du inpaktu sozial positiboa fiskalki saritzea, balio etikoak eta lan-baldintza bidezkoak dituzten negozioak sustatzea, bai eta irabazien antolaketan eta berdintasunezko banaketan tartean diren guztiek parte hartu dezaten bermatzea ere.

3. **Bidezko erreforma fiskal bati ekitea, desberdintasun ekonomikoari aurre egiteko eta trantsizio ekologikoa finantzatzeko.** Garrantzitsua da zergen bilketa-maila modu bidezkoan handitzea, ingurumen-kaltea ez sustatuz, eta ahalegin fiskal handiagoa eginez kapital-errenta handiak eta ondare asko eta handiak dituztenengan. Hauek lirake neurrietako batzuk: zergak berrikustea, hala nola ondarearen gaineko zerga eta oinordetzen gaineko zerga; zerga-ihesaren aurka borroka egitea; eta "kutsatzen duenak ordaintzen du"-en printzipioan oinarritutako fiskalitate berdea sustatzea. Garrantzitsutzat hartzen dira, halaber, genero-ikuspegia politika fiskaletan txertatzea, erregai fosilentzako subsidioak kentzea eta adingabeak ardurapean dituzten familiei kenkari handiagoak egitea.

C. ESKUBIDE SOZIALAK BERMATZEA

Ezinbestekoa da pertsona guzti-guztien eskubide ekonomikoak, sozialak eta kulturalak bermatzea, edozein dela ere administrazio-egoera. Horretarako, gizarte-babeserako sistema sendoa bat eraiki behar da, bai eta zaintzen sistema integral bat ere, bermatuko duena zaintzak berdintasunez eta diskriminaziorik gabe, berotasunez eta modu atseginean jasotzeko eta eskaintzeko eskubide unibertsala, zerbitzu horiek ematen dituzten pertsonak beren eskubideak baliatu ahal izan ditzaten. Politika publiko orok ziurtatu behar du premia handien duten pertsonak eskuragarri dituztela, dagozkien eskubideak baliatzeko aukera bermatuta izan dezaten.

Proposamenak:

1. **Enplegu duin eta egonkorreko aukera.** Funtsezko eskubidea da, eta helburu hori lortzeko neurri hauek proposatzen ditugu:
 - Laguntza pertsonalizatua, prestakuntza eta lan-orientabidea bermatzea, horretarako aberastasuna eta gizartean dauden baliabideak zuzen eta modu bidezkoan banatuta.
 - Gazteen enplegurako eta gazteen errealitatera egokitutako programa eraginkorrak abian jartzea.
 - Enplegu-politika aktiboak, kontratatzeagatiko hobariak barne, eragile guztien artean koordinatzea.
 - Artisten, sortzaileen eta kulturaren arloan lan egiten duten pertsonen eskubide ekonomikoen eta sozialen aitortzan aurrera egitea, horretarako Artistaren Estatutuak biltzen dituen lan-, zerga- eta prestakuntza-alorreko neurriak, besteak beste, ezarrita.
 - Enpleguan aniztasuna sustatzea, eta, horretarako, adina, askotariko gaitasunak, talentua erakartzea eta desberdintasunak murriztea aintzakotzat hartzen dituzten enpresetan planak garatzea.
 - Titulu akademikoak homologatzeko aukera erraztea atzeritarrei, bermatzeko lan-merkatuan baldintza berdinetan txertatu ahal izatea.
2. **Zaintzen sistema publiko eta komunitarioa garatzea.** Jakitun gara oso garrantzitsua dela zaintzen sistema berriro zehaztea eta bizitza zein zaintzak politika publikoen erdian jartzea. Horrek berekin dakar, halaber, gehienetan ikusezina eta emakumeek egin ohi duten zaintza-lana aitortzea, balioestea eta demokratizatzea. Hori lortzeko, zera proposatzen dugu:
 - Mugimendu feministarekin hitz egitea sektore guztietan, zaintzen sistema berriro zehazteko, aitortzeko eta balioesteko, bereziki dibertsitate funtzionala duten pertsonari, adingabeei eta adineko pertsonari dagokienez.

- Zaintzarako gune komunitarioak sortzea, hala nola zentro irekiak eta plazak, komunitateak haiengana hurbildu daitezen eta elkarri lagundu diezaioten.
 - Txiki-txikitatik heztea enpatiaren eta lankidetzaren balioetan, agerian jarri elkarren arteko mendekotasunaren eta elkartasunaren garrantzia.
 - Zaintzei buruzko hezkuntza- eta prestakuntza-programak ezartzea, modu egokian zaintzen irakasteko; eta zaintza komunitariorako baliaibideak eta tresnak eskura jartzea.
 - Komunitate bihozberen eta guraso bakarreko familiei laguntzeko programen adibide arrakastatsuak sustatzea.
3. **Bidezko eta kalitatezko hezkuntza publikoa sendotzea.** Hezkuntzari buruzko azken txostenetan jasotakoaren arabera, zenbait ahulezia hauteman dira Euskadiko hezkuntza-sisteman. Ikasgeletan desberdintasunaren eta segregazioaren aurkako benetako borroka bermatzea erronka handia da oraindik Garrantzitsua da, baita ere, ikasle etorkinen desabantaila akademikoa kontuan hartzea hezkuntza-politiketan; izan ere, eskolan euskararen hizkuntza-gaitasuna ez lortzeak eragin handia du ikasleen egunerokoan eta etorkizunean. Beharrezkoa da, halaber, hezkuntza-sektorean inbertsio handia egitea. Horrenbestez, ezinbestekoa da arazo horri aurre egiteko neurriak hartzea, eta, eta hezkuntzan gizarte-erronkak txertatzea (hezkidetzak, aniztasuna, STEAM, adimen artifiziala...).
4. **Eskubide kulturekin konpromisoa.** Gure lurraldea berezi egiten dute gure hizkuntzak eta kulturak, ezin bananduzkoak dira gure lurraldetik. Hizkuntza- eta kultura-aniztasuna garapen iraunkorraren beste alderdietako bat da. Beraz, oso garrantzitsua da pertsona guztien kultura- eta hizkuntza-eskubideak bermatzea, bai eta lurraldeko kultura-eragileek egiten duten lana aitortzea ere, hori baita haien eraldaketa-ahalmena sustatzeko modua. Baterako eztabaida jarri behar dugu abian, hizpide hartuta zer bide hartu nahi dugun lurralde gisa, norantz egin nahi dugun.
5. **Uraren, energiaren eta etxebizitzaren oinarritzko hornidurak bermatu, 0**

D. DISKRIMINAZIORIK ETA INDARKERIARIK GABEKO GIZARTEA

Bakea da 2030 Agendaren funtsezko oinarrietako bat, eta bakea gizarte baketsuen, bidezkoen, inklusiboen eta beldurrik zein indarkeriarik gabekoen emaitza da. Premisa hori gero eta erabakigarriago ari da bihurtzen egungo testuinguruan, nagusitzen ari baitira gatazka belikoak, polarizazioa eta gizartearen banantzen duten oztopo fisikoak zein sozialak. Joera horri aurre egiteko, ezinbestekoa da politika publiko proaktiboak garatzea eta legedia sendotzea, bermatuko badugu pertsona guztiak, bereziki indarkeria- edo gorroto-agerraldiak pairatzen dituztenak, beldurrik gabe eta diskriminaziorik gabe bizi daitezen.

Proposamenak:

1. **Hurkoarekiko eta hurbilekoarekiko konpromisoa eta parte-hartzea, pentsamendu kritikoa oinarri hartuta.** Funtsezkoa iruditzen zaigu pentsamendu kritikoa oinarri hartuta sustatzea gizartearen parte-hartzea; izan ere, horrek berekin dakar gizalegezko konpromiso handiagoa, eta, gainera, gizartean ditugun arazoak eta erronkak hobeto ulertzen laguntzen du. Horretarako, honako hauek proposatzen ditugu: ezagutza ez polarizatua bultzatzeko espazioak sortzea, pentsamolde-aldaketa sustatzeko; eta gure komunitateak garrantzitsutzat dituen gaiei buruzko eztabaida informatua eta gogoeta kritikoa suspertzeko plataformak zein jarduerak sortzea.
2. **Hezkuntza eraldatzailea sustatzea, berdintasuna eta justizia globala lortzeko.** Behin EAEko Hezkuntza Lege berria onartutakoan, erronka hura implementatzea izango da. Hezkuntza-ereduaren aplikazioak integratu, inklusiboa eta eraldatzailea izan behar du,

eta helburu nagusizat honako hau izan behar du: herritarrak beren eskubideez eta betebeharez kontziente izatea, zer-nolako munduan bizi diren konturatzea eta gaitatea gizarte global, arduratsu eta tokiko zein munduko errealitatea eraldatzeko konpromisoa duena eraikitzeke, oinarri hartuta giza eskubideen errespetua, elkarbizitza baketsua, enpatia, parekidetasuna eta planetaren jasangarritasuna. Erronka da hezkuntza-agendan modu sistematikoan txertatzea feminismoari buruzko ikaskuntza-edukiak, bai eta giza eskubideen zein aniztasunen errespetua eta justizia globala oinarri izango dituzten gizarteak eraikitzeke edukiak ere, 2030 Agendako 4.7 helburuak adierazitako moduan. Bestalde, hezkuntzak ez du eskola-adinean dauden pertsonentzat bakarrik izan behar. Bereziki garrantzitsua da hezkuntzak bere baitan hartzea eragileekin etengabe harremanetan dauden eta gizarte bidezkoagoa, berdinzaleagoa eta indarkeriarik gabea sustatzeko eta babesteko egitekoak dituzten administrazio publikoetako kideak ere (epaileak, segurtasun-kidegoak, osasun-arloko langileak, irakasleak...).

3. **Rolak aldatzea, enpatia eta konfiantza sortzeko.** Sinetsita gaude garrantzitsua dela rola aldatzea, sustatuko badugu enpatia, aniztasuna eta elkar ulertzea. Horretarako, erronkak, arazoak eta irtenbideak beste kolektibo eta sektore batzuekin partekatzea proposatzen dugu; izan ere, hartara, denon artean identifikatuko ditugu gizartean dauden gatazka nagusiak, eta rol-trukea sustatuko dugu elkar hobeto ulertzeko eta elkarrekin lankidetzan jarduteko. Horrezaz gain, kultura- eta gizarte-trukea sustatu behar da, eta hori lortzeko moduak izan daitezke, besteak beste, erakundeetan parte hartzea, kulturarteko topaketak antolatzea eta kolektibo zaurgarriak dauden eremuetan boluntarioritza-jarduerak egitea.

E. GIZARTE FEMINISTA

Aurrerapauso handiak eman ditugu gizarte feministarako bidean, baina laguntza handiagoa behar da aurrera egiten jarraituko badugu eremu guztietan: lan-arloan, instituzioetan eta familian. Genero-parekotasuna lortu behar da halabeharrez, hau da, arrakala oro desagerrarazi behar da, soldadari, lanaldiari eta etxeko lanei dagokienez; emakume guztiei bermatu behar zaie eskubide- eta aukera-berdintasuna, edozein dela ere jatorria, adina edo orientazioa. Ezinbestekoa da, halaber, onartzea mugimendu feministaren barruan ikuspegi bat baino gehiago daudela.

Proposamenak:

1. **Neurri zehatzen bidez bermatzea zaintza bizitzaren eremu guztietan aintzat hartuko dela,** bai maila pertsonalean, bai lan-arloan eta bai gizarte-mailan; zaintzaren erantzukizun partekatua sustatu behar da, eta generoaren araberako soldata-arrakalari aurre egin behar zaio. Neurri horien artean hauek dira nabarmentzekoak:
 - Zentzuzko lanaldiak sustatzea, guztiek izan dezaten aukera hazkuntzan eta zaintzan berdintasunez parte hartzeko; lan-baldintza duinak bermatu behar zaizkie zaintzako profesionalei, bereziki emakume migratzaileei.
 - Gizonen eta emakumeen arteko erantzunkidetasuna sustatzea; izan ere, zaintzagatik lanaldi-murrizketa duten gehiengo nabarmena emakumea da, eta horrek berekin dakar etorkizunean kotizazioak eta pentsioak gutxitzea eta, beraz, emakumea pobretzea.
 - Zaintzailea zaintzea; horrexegatik da beharrezkoa arreta-mota hori eskaintzen duten pertsonen eskubideak bermatzea; enplegu horiek prekarioak, gutxietsiak eta ikusezinak izateari utzi behar diote. Azken urteotan aurrerapauso handiak eman dira etxeko langileen eskubideak parekatzeko bidean, baina erabat parekatu behar dira; horren harira, bereziki hartu behar dira aintzat emakume migratzaileak, oraindik ere emakume horiek jasaten baitute presio

handiena zaintza-kate osoan, gutxiago kobratzen baitute eta egoera prekarioagoan baitaude.

2. **Soldata-arrakala desagerraraztea**, eta, horretarako, ezinbestekoa da ordainsari berdinaren printzipioaren eraginkortasuna bermatzea, bai lan berdinatik eta bai balio bereko lanagatik; ezinbestekoa da, baita ere, zaintzen alorrean erantzunkidetasuna sustatzea. Hori da modu bakarra emakumeek lan-merkatuan gehiago parte hartu dezaten lortzeko.
3. **Feminismo inklusiboagoa lortzea**. Horretarako, tokiko testuingurua xehetasun handiagoz aztertu behar da ekitatearen aldeko ekintzak zehazteko, eta ikuspegi feminista guztiek hartu behar dute parte politikak eta programak planifikatzen eta inplementatzen. Lehenik eta behin, politika eta programa horiek zer testuingurutan aplikatuko diren xehetasunez aztertu behar da, barne hartuta bai zaintzak eta bai emakumeen errealitate desberdinak, hala nola emakume migratzaileak eta landa-eremuak. Horrek berekin dakar feminismoaren ikuspegi globala hartzea, mugatu gabe bakarrik tokiko gaitara, baizik eta emakumeek mundu osoan dituzten borroak ulertuz eta landuz. Orobat, feminismo inklusiboagoak gizarte guztia politika feministetan inplikatzeko eskatzen du, bereziki gazteak eta gizonezkoak.
4. **Emakume guztien babesa sendotzea**. Horretarako beharrezkoa da emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioan inbertitzea, bereziki hezkuntzan, gazteei dagokienez. Ezinbestekoa da, halaber, indarkeria matxistako egoeran dauden emakumeen babesa sendotzea, eta, beraz, indarrean dagoen legedia egokiro inplementatzeko behar beste baliabide esleitu behar dira, eta prozesu judizialak langile espezializatuekin gauzatuko direla ziurtatu behar da berbiktimizazioa eragozteko. Indarkeria matxistako egoeran dauden emakume migratzaileek babeserako eta justiziarako aukera dutela ziurtatzea ere behar-beharrezkoa da, edozein dela ere administrazio-egoera; halako prozesuetan aurre egin behar izaten dieten oztopoei aurre egiteko neurri espezifikoak hartu behar dira.

F. DEMOKRAZIA SENDOA

Erakundeen demokrazia sendotu behar da, bai eta herritarren parte-hartzea eta ahalduz ere, funtsezko mekanismoa den aldetik gizarte gisa gure erresilientzia handiagoa izan dadin. Horretarako, herritarrek eta gizarte zibil antolatuak erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzea erraztuko duen ingurunea bermatu behar da; espazio zibikoak finkatu eta zabaldu behar dira, eta giza eskubideak beteko direla zainduko duen gizarte parte-hartzaile eta inklusibo sustatu.

Proposamenak:

1. **Herritarren parte-hartze inklusiboko programa integral bat inplementatzea**. Programak honako hauek izango lituzke oinarri:
 - Parte hartzeko bide sinpleak sortzea eta horiek herritarren eskura jartzea. Auzoetan eta herrietan nork bere kabuz (modu indibidualean) parte hartzea erraztuko duten guneak eta plataformak ezartzea; hartara, pertsona orok izango du aukera, norberaren esperientziatik eta egoeratik, ekarpenak egiteko zein iritziak adierazteko. Horrek guztiak bere baitan hartzen ditu auzoko bulegoak, herritarren batzarrak eta herri-kontsultak.
 - Eztabaidatzeko eta adosteko guneak bermatzea: denen intereseko gaiak eztabaidatzeko eta eragile parte-hartzaile guztien artean konponbideak adosteko aukera emango duten eremuak sortu daitezen sustatzea; horrek ziurtatuko egingo luke ordezkartzeko parte-hartze eraginkorra.
 - Komunitatearen interesen eta kezken ordezkari izango diren tokiko elkarteak eta erakundeak sortu eta finkatu daitezen sustatzea, baliabideen bidez.

Elkarte horiek herritarrek parte hartu ahal izateko bideak izan daitezke, bai eta arazo jakinak konpontzen laguntzeko ere.

- Teknologia erabiltzea ideiak partekatzeko eta jende gehiagorengana iristeko; hala, parte-hartze inklusiboa eta askotarikoa bermatzen da.

2. **Ideia- eta pertsona-aniztasuna, kudeaketa publikoan aurrerapausoak emateko.** Hori lortzeko, ezinbestekoa da kudeaketa publikoan parte hartzen duten profilak interes politiko alderdikoei soilik lotuta ez egotea eta askotarikoak izatea. Neurri horrek ziurtatu egiten du erabakiak hartzeko prozesuetan askotariko ikusmoldeak eta ikuspegiak egongo direla. Gainera, eremu publikoan eta publiko-pribatuan halaberrez sortzen diren gatazkei irtenbidea emateko, bitartekariaren figura ezarri beharko litzateke. Bitartekariak eztabaidak inpartzialtasunez eta eraginkortasunez konpontzen lagunduko luke, eta elkarrizketa sustatuko luke, bai eta erabakiak denon artean hartzea ere. Oro har, ideiak eta pertsonak txandakatzeak eta bitartekariak egoteak lagundu egingo luke kudeaketa publikoa are berritzaileagoa eta gardenagoa izatea eta guztien ongia lortzera bideratuta egotea.
3. **Gizarte zibilaren parte-hartzea instituzionalizatzea.** Administrazio publikoek eztabaidaren eta parte-hartzearen kultura bere egin behar dute, eta tresnatzat hartuta instituzionalizatu; eta guztien ongia lortzeko lan egiten dutenei egindako lana aitortu eta prestigioa eman behar diete. Ezinbestekoa da gizarte zibilaren esperientzia eta ahalmenak aintzakotzat hartzea, eta haren rola sendotzea, Euskadin zein munduan eragilea den aldetik; horrezaz gain, haren legedi- eta finantza-esparrua sendotu behar da, aliantzak inplementatzeko, berritzeko eta sendotzeko gaitasunak sortze aldera. Horrek herritarrei arreta ematen jarraitzeko eta herritarrek parte hartu ahal izateko espazioak defendatzen jarraitzeko autonomia eta jarduteko gaitasuna ahalbidetuko luke. Parte-hartzeak sistematikoa izan behar du, eta politika publiko guztien prestaketa-, jarraipen- eta ebaluazio-ziklo osoaren ingurukoa, eta ez bakarrik legegintzako proiektuen ingurukoa. Bide bat izan daiteke ad hoc lantaldeak sortzea gizarte zibilarekin edo jada abian dauden organoak baliatuz. Horrezaz gain, pertsona guzti-guztien parte-hartzea sustatu behar da: haur eta gazteak, migratzaileak, landa-eremukoak, adinekoak eta desgaitasunak dituztenak.
4. **Gazteek maila guztietan parte hartu dezaten sustatzea,** eta erabakiak hartzeko funtsezko elementutzat instituzionalizatzea. Beren ideiak eta kezkek adierazteaz gain, funtsezkoa da gazteak autokudeatzeko gai den sektoretzat eta gizartea eraldatzeko eragiletzat hartzea. Horretarako, erabakiak hartzeko prozesuetan gazteen parte-hartze aktiboa erraztuko duten politika publikoak sustatu eta bultzatu behar dira. Gizartean ondorio positiboak eragingo dituzten proiektuak garatzeko gai direla aitortzea funtsezkoa da, gazteak ahaldunduko badira. Parte-hartze eraginkorrerako espazioak eta bitarteko egokiak eman behar zaizkie, beren artean komunikatu ahal izan dezaten eta gazte-mugimenduak antolatzen parte hartu dezaten; bermatu behar zaie beren ahaleginak ez direla zirriborro huts izango, baizik eta beharrezkoa den aldaketa sustatuko duten begien bistako ekintza bihurtuko direla.

F. HERRI AKTIBOA, ALDAKETA GLOBALA LORTZEKO

Gaur egun, nazioarteko hainbat esparru eta erreferentzia ditugu gizarte aske eta seguru baterantz aurrera egiteko eta duintasunez bizitzeko planetaren mugen barruan. Giza eskubideen aldarrikapenak eta 2030 Agendak ibilbidea markatu dute. Hala ere, mundu osoan eragina izan duten azken urteotako krisiek —hala nola COVID-19aren pandemia, gerrak eta planetaren krisi hirukoitza— kinka larriarri jarri dituzte nazioarteko erakundeak eta multilateralismoa. Orain, inoiz baino gehiago, lehendik hartutako konpromisoak sendotu behar ditugu, eta Euskadi eredu-aldaketaren eragile aktiboa izatea lortu behar dugu, leheneratzeko bidegabekeria globalak, eta, aldi berean, ekoizteko zein

kontsumitzeko moduaren inpaktua gure mugetatik haratago hobetzeko.

Proposamenak:

1. **Garapen Iraunkorrerako Politika Globala ezartzea**, oinarri izango duena 2030 Agendaren politika- eta ekintza-esparrua eta gida izango dena mugaz gaindi eragina izango duten gure ekintzetarako. Esparru orientagarri horren xedea justizia globala, bakea eta giza eskubideak sustatzea da, horretarako garapen iraunkorrerako politiken koherentziaren ikuspuntua hartuta. Helburua da modu parte-hartzailean eta bateratuan garatutako politika horrek bere baitan hartzea estutasunik gabe edo zintzo bizitzearen helburuak, eta ziurtatzea alderdi interesdun guztien parte-hartzea, bai gazteena eta bai ETE-ena, eta, horrezaz gain, kanpo-ekintza oro orientatzea, kontuan hartuta euskal politikek, hala nola kanpo-merkataritzakoak eta lankidetzakoak, planetako beste pertsona batzuegan edo lurralde batzuetan izan ditzaketen eraginak.
2. **Elkartasuna eta lankidetzaren sustatzea**: Lankidetzarako eta Elkartasunerako Lege berria oso mugarri positiboa izan da; baina, orain, lan egin behar da errealitate bihurtu dadin, batez ere 0,7 historikoaren inguruko finantzazioari dagokionez. Era berean, premiazkoa da babestea giza eskubideak, ingurumena eta komunikazioko profesionalak defendatzen dituzten pertsonak eta erakundeak, eta, horretarako, lege-esparru egokiak ezarri behar dira, instituzioen aitortza behar da, eta baliabide zein finantzazio malguak eta jasangarriak behar dira. Azkenik, elkartasuna eta komunitatearen alde egindako lana zerga-aldetik laguntzea eskatzen dugu, lankidetzaren selektiboa sustatuz, denborak zein mekanismoak ezarriz eta denon intereseko proiektuetan eraginkortasunez lankidetzaren aritzeko erraztasunak emanez. Gainera, gogorarazten dugu justizia soziala ezinezkoa dela lurralde okupatuan. Horregatik, eskatzen dugu Israelekin armen eta teknologia militarren merkataritza etetea bultzatzea, harreman diplomatikoak hautsiz, Palestinan egiten ari diren genozidioa geldiarazteko.

ERANSKIN: Dokumentuari atxikimendua adierazi dioten erakundeen zerrenda



Honako hauek sustatutako prozesua:

